

Juan San Martin Liburutegia “*Idazlearekin harixa emoten*”



Herriak ez du barkatuko

Irati Goikoetxea, Elkar, 2021

Iruzkina: Antxon Narbaiza, 2021-12-14



Wikipedian

<https://labur.eus/nI5Jk>

Egituraz

Irati Goikoetxeak idatzi duen eleberriak 175 orrialde ditu hiru parte nagusitan banatuta, I, II eta III. Iak hiru atal baino ez ditu, IIak, sei, eta, azkenik, IIIak, bakarra.

Hirugarren pertsonan idatzia, salbu eta dialogoak noski, narratzailea protagonista nagusiari, Oihanari, zuzentzen zaio etengabe, haren aldartearen gorabeherak behin eta berriro adieraziz. Prosa ulergarria eta txukuna darabil beasaindarrak. Denbora berriz, harat-honatean rabiltzen du narratzaileak, beti ere gertakari “nagusiaren” mendean.

Sufrimendua eta mina

Ondoko lerroetan, eleberrian zehar maiz izendatzen diren bi kontzeptu, bi adierazpideren inguruan arituko gara laburki: sufrimendua eta min fisikoaz ohartxo batzuk barneratu ditugu nolabaiteko hizketagai bihur daitezten.

Sufrimendu morala eta min fisikoa bat datoz zenbait alderditan baina esperientzia desberdinak eta desberdingarriak ordezkatzten dituzte.

Sufrimendua, iluntasuna, deskonexioa, lozorroarekin lotzen da, ostera, minak, oinazeak, egonezina adierazten du.

Sufrimendua, esplikagaitza izaten da, komunikazio zailtasuna erakusten du eta urruntasuna¹. Mina, oro har, kontatu egiten da. Sufrimendua, barruko etsaia da; mina kanpokoa. Sufrimenduak uzkurtze bat, urruntze bat, komunikazio eza adierazi ohi du. Aitzitik, min fisikoa duen gizakiak, edozelakoa ere delarik haren zergatia jakin, azkar nahi luke egoera hartatik irten. Ospitalean larrialdi gela batean dauden gaixoek min handia dute baina ez daude penaturik.

Arriskua dago noski, gure sufrimendu hori min fisiko bihurtzeko; hots, **somatizatze**ko. Gure neurak, gaixotasun objektiboak bilaka daitezke. Haren ondorioz esaterako, beherakoa, urdailekoa, azaleko gaitza, edo auskalo zer nolako ondoezak sor litezke. Hau da, barruan darabiltzagun konponezin edo ezinegon psikologikoak

¹ **El Padrino** pelikula, Al Pacino aktoreak egiten duen lan bikaina adibide bezala gogorarazten dugu: bertan mina aipatua izan da, hain zuzen, eszena hartan non alaba bihotzeko tiroz hiltzen dioten mafiosoari: horregatik hark sufrimendua handia du baina min aztarrenik ere ez. Hona zer dioten Javier J. Suso soziologoak bere **Contrastes** lanean (2018):

“El dolor, particularmente si es de causa desconocida, se expone, se explica, se señala. **El sufrimiento es un enemigo interior; el dolor es un adversario exterior.** El Padrino: Parte III, (Francis Ford Coppola, 1990), Al Pacino interpreta al benjamín de la estirpe mafiosa cuando se debe hacer cargo del imperio familiar, lo que le genera grandes dosis de sufrimiento personal, en ausencia de dolor. Inolvidable la secuencia final en la que el protagonista ve morir a su hija bajo la tiranía de una bala destinada a él. Nadie ha expresado mejor sin palabras **el sufrimiento extremo** y la desolación absoluta que el actor neoyorquino Michael Corleone, muerto en vida, fallece solo y abandonado de todos, mientras la vida continua en un aislamiento total. **Nunca entra en el drama el dolor físico como integrante del escenario, sencillamente porque no forma parte de la situación**”.

gorputzaren bidez adieraz daitezke. Ez dugu Euskal Herriko daturik esku artean baina, Espainia mailan emakumeen artean %29 gehiago ematen omen da gaitz hau.

Sinopsia

Oihana dugu pertsonaia nagusia Euskal Herrian behin erail zuten gizasemearen alaba. Baina badira urteak hura gertatu zenetik. Gertakariaren egunean, neskato bat zen hura orain ama da. Urteen poderioz mamurtzen joan da aitaren tragedia. Orain bere mezua eraiki nahi du. Baina ez du etsi nahi zeharbide, xenda eta aldatza, egiazko norabidea aurkitu arte. Oihanaren etxean, zuzen-zuzenean ia aipatzen ez den gertakaria hiltzailearen egintza bera eta ondorioa gogoratzen dituzte, gogoratu baino gehiago bizi, sufritu ohi dituzte. Horregatik Oihanaren ingurua eta bera dutela erreferentzia jardungo dute gainerako pertsonaiek. Feli, Oihanaren ama, emakume adone handiko emakume bezala ageri da kontakizunean, baina, fikziotik errealitatera jauzi egitea zilegi bazaigu, komunikabide mediatikoek azpimarratu duten emazte-ama-alargun protagonismoa saihestu egiten da nobelan. Urteak alperrik ez direla igaro azpimarratuz, Oihana bera izango da alaba, emazte eta ama betekizunak bereganatuko dituena.

Gauzak horrela, Oihanaren biografia bat, edo hobeto adierazteko, haren bizi-penen kronika bat dela esango genuke, aita zenaren figura beti presente duela. Nobelaren tesiaz –balego– eta erakutsiez jardutea dagokigu.

“Herriak ez du barkatuko”. Eleberri berezi bat

Nahasgarri izan daitekeen izenburuak, esanahi bitarikoa izan baitezake, ematen dio hasiera Irati Goikoetxearen nobelari. Irakurleak aise antzematen duenez, gurean gertaturiko hilketa politiko batean oinarritua dago nobela.

Narratzailea ere berezia

Narratzailea ez dator Oihanaren eta bere inguruko hurbilekoen sentimenduen hotz-beroa jasotzera. Ez horretara bakarrik behintzat. Esan nahi dugu narratzailearen baitan ez dagoela kontraesanak eta gaizki eginak jasotzeko asmorik. Narratzailea eleberrian barrena, tragedia bati hogeitaz buruan eman ziezaiokeen irakurketa duina eta, batez ere, hark erein dezakeen askatasun eta tolerantzia hazia indartu dadin, horretan saiatzen da.

Nobelaren harian

Iman erraldoi bat edukiko bagenu bezala, zeinek inguruko gauza guztiak erakarriko lituzkeen, epizentrorantz alegia, eleberriko pertsonaia gehienek, handik edo hemendik, guk gertakari “gune” deituko genukeen puntura joko dute. Zuzenean edo zeharka presente dago beti familia bat inarrosi zuen gertakaria. Orain urteak aurrera, eleberriko pertsonaiei dagokie bizitza berri bat nola eraiki asmatzea, batez ere etorri berriei erakutsiz, mina eta sufrimendua, nobelan etengabe aipatzen diren hitzak, nola kudeatu eta, astiro-astiro eraldatu.

Pertsonaiak bada, gertakari nagusiaren eraginpean bizi dira: aldagarri dira noski denbora eta espazioa. Denborak zaurien orbaintzea ekarri behar luke –sendagai “arrunta” gizabanakoak eta kolektiboek baliatu ohi dutena. Baina nobelako pertsonaiek ez dute ikuspegi hori erabat onartzen, oraingoz beste lehentasun batzuk baitituzte: nolabait proaktiboak izan nahiko lukete. Espazioa, zalantza zauri sendatzailea gure kasuan, zeinetan protagonista, adibidez, urrundu egiten den bere jaioterritik gero itzultzeko behin betiko.

Baina ez du narratzaileak *behartutako* dolu mota askoren azalpena ahanzi. Bada, bere aita GALekoa izan zena, seguru asko hilketa askotan esku hartutakoa (Carmen, Albaceteko laguna), istripu zoritzarrekoan hil zuten Eduardo, Oihanaren mutil lagun ohiaren aita eta abar. Azken finean, doluak dakarren mina gizaki orengan finkatzen da. Horregatik Oihanak eta Edurnek hitzordua dute EHUko Santi antropologoarekin. Beraiek eta beste askok. Denak mina jasan edo jasaten ari den jendea. Arrazoi bategatik edo beste bategatik. Esaterako, dutxatzen ari dira arestian aipaturiko emakumeak, nor bere etxean. Oihanaren mina ezagutzen dugu, Edurnerena berria dugu, baina nahita eginarazia. Edurne tortura jasandakoa da; orain gertakari latz haiek gogora ekartzen dihardu, gero bere lekukotasuna emateko.

Beste min mota bat. Horregatik Oihanak dioen bezala: “mina mina da, nahiz eta malko bakoitzak ezberdintzen bustitzen gaituen”(49).

Komunikazioa

Eleberriko pertsonaia gehienek badute bateratasun handi bat, komunikatu egiten dira, egin egiten dute, zeren isiltasuna txarra da, ez du aurrera egiten uzten. Luis Landero idazleak dioen bezala, bizitzea, bizitzea gehi bizitutako hura kontatzea da. Oihanaren kasuan komunikazioak bazuen terapia osagairen bat. Izan ere, biziki sufritzen zuen hark askoren itxitasunagatik. Bere maite-harremanetan, adibidez, zintzotasuna asko balioesten zuen. Adibidez, begitazioa edo begitankortasuna, gizakiok horren berezkoa dugun maiz ahuldadea izan ohi den izakera, ezin zezakeen ekidin. Santi hura agertu zitzaionean bezala: zertara dator, zer asmo ote dakar?

Oihana bere barruko oreka topatzeaz landa, lan itzela zuen bere inguruko artean harmonia aurkitzen. Amarekin harremana sendotu, garia eta lastoa bereizten, haren aholkuak aintzat hartzen, seme eta alabaren artekoa, senarrarekin bateratu...Eta kanpokoekin zer esanik ez. Eta zama handi horrek higadura zekarkion bere barrenean. Desorekatze bat, horregatik bere noizbehinkako orroak. Aitarena obsesioa bilaka zekiokkeen, adibidez, etxean, zoruko azulejuak kontatze hartan...Edozein ñabardurak aita gogora ekartzen bazion haren burmuinak jaso eta sailkatu egiten zion.

Eta beti ere, egia beti norberarekin eraman beharraz. Zailtasunen artean, Asier fakultateko laguna aipatzen zuen, mutil-laguna bilakatu zena hiru urtez, hark izan zuen portaera bat-bateko gogorra berekiko. Izurrite batetik bezala alde egin zion arte. Horrelakoak hurbiletik edo ez horrenbeste kontuan izan behar zituen Oihanaren munduak.

Etxekoen artean ere, sortzen zen noizbehinka adostasun eza. Martin nebaren portaera Oscar aita zenaren bizkartzainaren betebeharrei buruz.....

Min handiago eman zezaketen baina itzuriezinak ziren gaztetxoek adierazpenak. Oihanaren seme nagusiaren Lukasek, jada 14 urte ditu eta, "ipuunik" ez du onartzen aitona galeraz: "Aitona, E.T.A.k hil zuen", egingo du garrasi gurasoen aurrean, seguruenik eskolan dituen autuaren inguruko gorabeheraz aspertuta.

Heriotzak mila aurpegi eta oinaze ditu

Egileak lan handia hartu du heriotzaz (bortxazko edo bestelako hilketak zein eta ustekabeen gertatuaz aritzeko barneratuz, ohiko gaixotasun bidezkoak bazterturik), kontakizunean barrena aritzeko. Ñabardurak ñabardura, kontraesanak azalaraziko nahi ditu Oihanak berak! desberdintzat jotzen diren heriotza mota zenbaiten aurrean. Kontraesana ikusten du Eduardok ETaren zuzeneko atentatuaren aurrean duen jarreraz (“hiltzaile guztiak akabatu behar dituzte” dio) eta, bere aita bizikletan zoala hil zutela eta, adierazten duena (“mundua hiltzailez beteta dago”).

Heriotzaren mundutik at ere, doluaren, minaren espektro zabal bat azaldu nahi digu egileak eta, lan horretan, arestian aipatu dugun legez, Santik bultzaturiko “minaren bilera” hartan, hark ere erakutsi nahi dio Oihanari bera ere sufrimendua bizitakoa dela (aita pederasta baten gehiegikeriak jasan zituen umetan).

Eta nolakoa da Oihana?

Tragedia baten zelanbaiteko erreferente nagusia bilakatzen ari dela sumatu du aspaldi Oihanak. Eta, jakina, urteak bete ahala, barruko mina, barruko harra hor dabilkio. Diskurtso egokia, baliagarria, zuzena eta ez histrionikoa, eraiki nahi luke. Baina biderik gaitzena du: hasteko, bere barne-oreka lortu behar du, une asko pasatu ditu negarrez eta goibel, horretaz kanpo bere barrutik kanpora jauzi egitera bultzatuko lukeena aurkitu behar du. Bere kontakizuna harildu, barren-barrenean egosia, bere familian datozei aurrenik (nobelari amaiera ematen dion pasarteak eredugarria izan nahi luke zentzu honetan) eta, gero, gizartearen baitan defendatzeko prest egon behar luke.

Oihanak tentsio betean bizi du bere patua. Horregatik ez gara harritu behar hark bere fetitxeak, bere ohiturak apur bitxiak agertzea. Edalontzia apurtu zaiolako ez du bada bere oin hutsik ibiltzeko aztura baztertuko. Min fisikoa zer da, existitzen al da, galdetzen dio bere buruari. Badu izan ere, bere teoriarik horretaz ere: “Min fisikoa, beste min batzuk arintzeko izan zen sortua”.

Ama Feliren *laguntza* badu, baina hura miresten duen arren (78), bere beretik jarraitu nahi luke alabak. Zenbaitetan etxekoen etsikortasunari adorez erantzungo dio. Lagun artean eta kalean, oro har, zenbait unetan sufririko zuen Martin anaia adibidez, hark “baztertu sozialak gara” dioenean bezala. Oihanak ez luke horren biribil hitz egingo eta arestian aipaturiko adorea erabiliz, mespretxuzko begiradak sumatu arren, ausarta izango da: *besteen* tabernetara joko du. Puntu honetaz ohartuko gara, eleberrian ez dela –guk ez dugu aurkitu behintzat– *gu/haiek*, *beraiek* izenordainen erabilerarik.

Albacete eta Euskal Herria: espazioak ez du agintzen baina...?

Baina Oihanak egunerokotasun gordinenari egin behar dio aurre. “Gertakariaren” gunean bertan edo gertu bizitzeak tentsio gehitu bat ekarri ohi du. Zaila saihestea bertan bizitzen jarraitzen baduzu. Egin zuen aproba Albaceten bizi izan zen urteetan. Baina itzuli egin zen. Bertan Eduardorekin izan zuen Lukas semetxoarekin batera. Askok ulertu ez zuten erabakia. Oihanak, ostera, argi zeukan: “Bi min gehitxo dira seme baten heziketarako, herentzia makurregia” (85). ETAREN *zuzeneko* atentatu baten oihartzuna Euskal Herritik kanpo sufritzeko aukera ere izan zuen, tenple handia erakutsiz.

Baina Oihanaren burmuinak etengabe ari dira. Gaztetxo zeneko oroitzapenak aletzen hasten dela eta gogoan du Unai, gero Txisto gaitzizena hartuko zuena, eta, haren jarrera berarekin. Eta ondoko gertakariak. Eta izugarriena hura pupitrean idazten ari zena, Oihanaren aitaren kontra, eta dena biribiltzeko esaldi madarikatua: “Herriak ez dio barkatuko”(56). Halere, urteak isuri ziren baina orbanek sakon jarraitzen zuten. Oihana ez da kokiltzen dena, ausarta da, oso ongi ikusiko ez duten esparruetara jotzen du – arestian ikusi dugu bezala–, halako terapia baikor bat bilatu nahi balu legez.

Kontakizunaren ertzak

Baina egiazki barru-barruan eraman ohi den oroitzapen-mina etxean bertan landu beharko du Oihanak. Agian berak bizitutakoa baliagarri izan dakioketxekoei helarazteko? Deus pozgarririk ez duen “hura” nola azaldu: zer gertatu zen, nola, zergatik eta...Kuriroski Oihanak amaren dei beltza jaso zuen jadanik aspaldiko egun hartan, eta hark esan ziona bere egin zuen neskatoak: Etxera joateko eta ez pentsatzeko ezertan. Bihurtzeko burua zulo². Zulo hau gero asko erabiliko du orain ama den Oihanak bere alaba Kattirekin. Zulo hau ez dakigu zehatz zeri lotzen zioten. Arazoa, deslekua, agian. Adibidez, 165. orrialdean Carmenen galderari erantzunez bere uda osteko egoera azaldu nahi dionean: (...) “Dena zuela lekuz kanpo (Oihanak). Burua, gogoia eta indarra. Dena gainezka. Dena **zulo**”.

Amaren aitortpena eta harrez gerozko esaldi errepikatu hura nobelan. Esaldi hiperbolikoak, pertsona hura –aita– guztiz, erabat, gramatikak ahalbidetzen dizkion forma guztiak erabiliz: “Aita hil zela, aita hil zutela, aita hil ziotela”.

² Nobelaren hastapenean elkarrizketa dute ama-alabek: Oihanak eta Kattik. Baina berez aurretik eskolan, Kattik eta eskolakide Ireik izan dute, **zulo** hitza baliatuz.

Sufrimendu xortak

Eleberrian barrena, ttanttaka bezala, Oihanak bere zirrara erakusten du. Nola *egun hartan* deitu zioten, zer esan zioten...Ekintzaren soiltasuna doilorra izateaz kanpo, ez zen ezer haren ondorengo mina eta sufrimenduarekin alderatuz.

Eta, jakina, berak entzunak, mamurtu, irentsi, eta beraiekin bide harritsu bezain aldatsua geratzen zitzaion. Betekizun berria amarena, eta...nola arraio kontatu behar zien bere seme-alabei zergatik falta zuten aitona....

Eta, arestian aurreratu dugun bezala, Oihanak etxekoekin landu beharreko kontakizun baliagarri bat behar du.

Prosa poetikoa

Sentiberatasun handiz ari da idazlea eleberrian barrena. Natura eta gizakia deituko genukeen azpiataltxo honetan azpimarratu nahi genuke, adibide bezala, III. atalaren hasieran **haizearekin** egiten dituen pertsonifikazio edo prosopopeiak. Olerkia eginez hitz lauzkotan. Irudimentsua dago egilea lerro hauetan: “Haizea libre dabil”, eta aurrerago, “basoa tokiz aldatuko luke haizeak ahal balu, bultza eta bultza, sustraiak airean”, edota aurrerago: “Badaki zerbait haizeak udazken aurreaz. Ez diezaiola askatasuna inork lapurtu”. Denon askatasun egarria. Baita usoak ere, nahiz eta hauen patuak *fatalismo* erakusten duen: Badoaz usoak hegoaldera...”haize ufadetan bere zoria urkatzera”. Hegaztiek haizea lagun izango dute baina...tiro artean egingo dute hegan eta zerua sutu egingo da; harrez gero ”usoak hiltzen ez dituzten balez josiak daude lainoak” (161). Azken finean, udazkenaren bilakaerari kantu polita dugu. Eta **haizea** izango da, Oihanaren familiaren osagai totemikoa bilakatu dena bere aitaren mendi kaskoko oroigarria, esperantza ekarri nahiko duena, amak alabari xuxurlatzen dion huraxe, orduan oraingo lañotasuna eta egiatasuna, biak batera, ordezkutzen dituen Kattiri.

Hain zuzen, eredugarriak baitira Oihana eta Katti alabaren arteko jarduntxoak. Ederki islatua berriro ere haurraren xalotasuna. Euren emozioen gailurra bihurtuko den goi hartan mendi-postontzi bat dago. “Eta begiak tolesten asmatuz gero, munduan ikusten da handik” kontatzen dio amak alabari. Zer den mundua galdetzen dio alabak amari. “Basabitxilorez betetako zelai bat”, besteak.

Heriotzak mila aurpegi eta oinaze ditu

Egileak lan handia hartu du heriotzak, (bortxazko edo bestelako hilketak zein eta ustekabeen gertatuaz aritzeko barneratuz, ohiko gaixotasun bidezkoak bazterturik), kontakizunean barrena. Ñabardurak ñabardura, kontraesanak azalaraziko nahi ditu Oihanak berak! desberdintzat jotzen diren heriotza mota zenbaiten aurrean. Kontraesana ikusten du, aurretik iragarri dugun legez, Eduardok ETArek zuzeneko atentatuaren aurreko jarrera (“hiltzaile guztiak akabatu egin behar dituzte”, dio) eta, bere aita bizikletan zoala istripuz edo hil zutela eta, adierazten duena (“mundua hiltzailez beteta dago”).

Heriotzaren mundutik at ere, doluaren, minaren espektro zabal bat azaldu nahi digu egileak eta, lan horretan, Santi antropologo hark ere erakutsi nahi dio Oihanari bera ere aita pederasta baten gehiegikeriak jasan zituela.

Mina vs sufrimendua

Oihanaren gogoetak, liburuaren azken hatsetan oso zentzuzkoa dirudi. Oihanak hautatu behar duela aspaldi konturatuta dago. Eta, are gehiago, orain seme-alabak dituela. Horregatik haren ahoan jartzen diren hitzak :”ezin du sufrimenduaren zama seme-alaben gain utzi. **Mina hor geratuko da, hor behar du, baina sufrimendua ezin da arrastaka-arrastaka sator-zulo bihurtu**”.

Iritzia

Eleberriaren egilea ataka garbian dago. Berak fikzioa eraiki nahi du baina GERTAKARIA (horrela letra larriz) ber-bertan dauka. Hura bizi izan zutenek gogoratzen dute ondo eta ezagutu ez zutenek bestek esandakoaz dakite.

Egileak fikzioa eraiki nahi du baina, kontuz, GERTAKARIA, ezin du ukitu, **hura** ezin du fikzionatu. Zer egin?

Irati Goikoetxeak lekukoak, egoerak, harremanak, tokiak, sentimenduak, sufrimenduak, minak, koloreak, maitasun-gorrotoak fikzionatu ditu.

Azken emaitzak ez duela GERTAKARIAren inguruko filosofia islatzen, ez duela giroaz, egoeraz zerikusirik? Askoz hobeto. Horrela irakurle jakituna konbentziturik geratuko da fikzio baten aurrean dagoela eta hartaz bere epaia, bere iritzia eman ahal izango du askatasun osoz.

Irati Goikoetxeak sentiberatasun handiz eraiki du kontaera non eguneroko bizitzaren bulkadak, gorabeherak, xehetasunak aipatzen eta kontatzen diren, kontaera handi-berriaren eraikuntzan zelanbaiteko hartxintxarrak bailiran, pilatuz doazen.

Oroimena ordezkutzen duen mendi erpineko oroitarritik bertatik adiskidetasun eta begirunezko oihu xume baina irmoak hedatuko dira mundu zabalera.

Azken finean horrelakoa baita erronka, ezdeusa bailitzateke iraganaren irakurketa adostu bat izatea, baldin ez balitz denon arteko etorkizuneko zelanbaiteko bititza harmoniatsu bat eraikitzen saiatuko ez bagina etika unibertsalak eskaintzen digun esparruaren barruan.

IDAZLEAREKIN HARIXA EMOTEN

<https://www.eibar.eus/eu/kultura/jsm-liburutegia>

<https://www.liburutegiak.euskadi.eus/eibar>



@EibarLiburutegi



@EibarkoLiburutegia



@eibarkoliburutegia



@eibarkoliburutegia



Juan San Martin Liburutegia

Bista Eder, 10 (Eibar)

Tel. 943 70 84 37

liburutegia@eibar.eus



Euskara Elkartea